

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al  
duzu Donostia?


## Binagrene

Ozpina edo «binagretik» omen dator izengoiti hau; ez harritu, halaxe da eta. *Mirakruz-gaina* edo *Alto Mirakruz* Ategorrietatik Herrera aldera joaten, gain bat pasatzen dugu, horixe da *Binagrene*, edo *Alto Vinagres* gaztelaniaz.

*Binagrene* izena nondik datorkion ezaguna da bertakoak diren adineko pertsonentzat. Gain hone-tatik bide nagusia pasatzen zenez, baziren bi taberna ezagun: bata *Arzakenea*, eta bestea *Txiskuene*, *Bentaberri* ere deitua zena.

Bi ostatuak oso ezagunak ziren donostiarren artean, baina, batez ere, *Arzakenea*. Bertan «billerak»\* egiten ziren igandero eta jendeak etxe aurrean, bidearen erdian noski, dantzatzen zituen fandangoak, arin-arinak eta «balsian» ere ibiltzen omen ziren ahal zutenean. Autoak pasatzean, jendea dantzan ari zela, desbideratu egiten omen ziren, haiek garaiak!

Badakigu bezeroa oso gaiztoa dela tabernariekin, eta *Arzakeneako* ardoa oso



txarra omen zenez, hortik jarri zioten «Binagre» izengoiti bezala. «Mirakruz» izenaren esanahia dirudenez, Lezoko Santo Kristora Donostiatik joaten ziren erromesek jarria dela diote. Gain honetara igotzen zirenean bertatik ikusten baitzuten Lezoko San Juan Parrokiaren teilatuko gurutzea.

Gaur, ospe handiko jatetxe bihurtua, zutik

mantentzen da *Arzakenea* zen ostatu zahar hura. Errepidea zabaltzeko *Txiskuene* bota egin zuten eta bertako tabernariak gaur zutik dagoen izen bereko beste jatetxe bat jarri zuten Amara auzoan Ospitale inguruan. Gaur egun, zoritxarrez, *Binagrene* eta Lezo artean dagoen etxe «ohiana» dela medio Lezoko gurutzea ez da ikusten.

*Txiskuene* = Txiskuene  
«Binagre» = «Binagre»

\* *Billera*. Donostiako auzoetako zenbait tabernarik musikoak kontratatzen zituzten igande arratsaldetan dantzaldiak egiteko beraien tabernen atarrietan. Gazteria leku hauetara biltzen zen dantza egitera.

JOSU TELLABIDE  
ARGAZKIA: XIMON

**YARZA**  
ferreteria

- Herramintak
- Burnisareak
- Sukalde bateria
- Torlojuak
- Eraikuntzarako ferraketa
- Opariak

Antso Jakituna, 16 • Tfnoa.: 45 15 08 • DONOSTIA